



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 28a

9. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, autonomia erkidego mugakide guztiekiko harreman-politika orokorra dela-eta Foru Gobernuak aurreikusi dituen politikei eta ekintzei buruzkoa. Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Guardia Zibilari eta beste erakunde batzuei eska diezaien Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxiboak irekitzeko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaien azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua indargabetu dezan, zeinaren bidez maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko proben ezaugarri orokorrak arautu ziren. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-estaldura areagotu dezan. Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraibideak eman ditzan hurbiltasunekoa eta ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzuen kontratazio publikoa. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz taxutu dezan Nafarroako Merkataritza Modernizatze IV. Plana. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten baitizkie TRW Automotive España, S.L. lantegiko langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Olga Comes presoaren hurreko pertsoneri. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroa-Akitalia-Euskadi Lurralde-lankidetzako Europako Taldeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Elkarrenganako Bermedun Sozietateak Elizondon eginen duen utzarazpenari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Alergologia-arloko itzarote-zerrenda luzatzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Servicios Sociosanitarios Generales enpresak emandako anbulantzia-zerbitzu publikoari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, itzarote-zerrendak murrizte aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan planari eta irizpideei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (15. or.).
- Galdera, preskribatutako zor fiskalari buruzkoa. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (16. or.).
- Galdera, lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak Buñuelgo Alstom enpresako ardura-dunekin izandako bilerari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Hezkuntzako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Planari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, heldu den ikasturtean D eredu eskatzen duten herritarren beharizanak asetze aldera Hezkuntza Departamentuak aplikatuko dituen irizpideei eta neurriei buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (19. or.).
- Galdera, “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeko aurreproiektua edo proiektua egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera hezkuntza-eragileekin Gobernuak izandako bilereari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, “itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako azpiegituren kostuari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak bere sinatetik sortu dituen lanpostuei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako familien fiskalitateari buruzkoa. Galdera erretiratzea (22. or.).
- Galdera, Osasun-sisteman itzarote-zerrenda itxiren bat egoteari buruzkoa. Galdera erretiratzea (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaiak aurkezteko epea luzatzea (23. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, autonomia erkidego mugakide guztiekiko harreman-politika orokorra dela-eta Foru Gobernuak aurreikusi dituen politikei eta ekintzei buruzkoa.

NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, autonomia erkidego mugakide guztiekiko harreman-politika orokorra dela-eta Foru Gobernuak aurreikusi dituen politikei eta ekintzei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Gobernu berria eratu zenez geroztik, bai Foru Gobernuko lehendakariak, bai kontseilariak, bilerak izan dituzte Eusko Jaurlaritzako beren homonimoekin, zeinen ondorioz bi erkidegoen arteko lankidetzahitzarmenak sinatu baitira.

Bilera horiek direla-eta, Iñigo Urkulluren gobernuarekiko harremana “harreman etengabetzat” jotzera iritsi da Nafarroako Gobernua.

Lau alderdiek sinatutako programa-akordioaren helburuen artean jasotzen da “auzotasun- eta lankidetzaharreman onak izatea autonomia erkidego mugakideekin eta EAerekiko harremanak normalizatzea eta sustatzea”. Adierazi beharra dago planteamendu hori sartuta dagoela, hain zuzen ere, Nafarroaren autogobernuaren defentsarako eta sustapenerako proposamenen artean.

Bi erkidegoetako gobernuen artean egindako bilerez gain, Nafarroako Gobernuko lehendakaria Akitaniako lehendakariarekin bildu zen, Nafarroa Akitania-Euskadi euroerregioan sartzea eskatzeko. Foru aurrekontuetan bi kontusail sartu dira helburu horrekin.

EAerekiko harremanen “bultzada” horren ondorio da, halaber, Foru Komunitatean EITB emititzeko akordioa.

Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bilera horiek egin bitartean, ez da gisako bilerarik egin beste autonomia erkidego mugakide batzuetako gobernuekin, programa-akordioan jasota dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuari zuzendutako jabeldura, autonomia erkidego mugakide guztiekiko harremanen arlo orokorra dela-eta Foru Gobernuak aurreikusi dituen politikei eta ekintzei buruzkoa.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 20an

Eleduna: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Guardia Zibilari eta beste erakunde batzuei eska diezaien Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxiboak irekitzeko.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Guardia Zibilari eta beste erakunde batzuei eska diezaien Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxiboak irekitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Guardia Zibilari eta beste erakunde batzuei eska diezaien Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxiboak irekitzeko.

Gerra Zibila eta diktadura frankista bezalako tragedia kolektibo bat erabat gainditzeak lehentasuna izan behar du erakunde publikoentzat. Hori dela-eta, Nafarroan urrats ugari egiten ari gara, pixkana-pixkana, justizia-zulo hori betetzeko, ahanztura-urte horien ildo zuzentzeko eta familia errepublikanoei, errepublikano izateagatik, egin zitzaizkien kaltea ahal den neurrian erreparatzen saiatzeko.

Bide hori sendotzeko, muntako zeregina daukate ikerkuntzak, gertatutakoaren ezagutza zehatz eta zorrotzak eta egia, justizia eta erreparazioarako datu-ekarpenak. Horregatik da garrantzitsua gerra zibilari eta diktadura frankistari buruzko artxiboak libreki eta murriztapenik gabe eskuragarri egon daitezen.

Hain da horrela non erakunde publikoak behin baino gehiagotan azaldu baitira artxiboak irekitzearen alde. Zehazki, 2003ko martxoaren 10ean egindako bilkura solemne eta historikoan onetsitako adierazpen bereziaren 4. puntuan, Parlamentuak gizarteko organismoek eskatzen zien “beren artxibo historikoetan (zibil, erlijioso eta militarretan) urte haietako jaiotza- edo heriotza-agiriei buruz daukaten dokumentazioa gorde dezaten eta iritzi publikoaren esku jar dezaten, 36an fusilatutako gorpuek non dauden jakiteko lanak errazte aldera.”

Eta beste horrenbeste esaten du abenduaren 26ko 52/2007 Legeak, gerra zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta haien aldeko neurriak hartzei buruzkoak, zeinaren 22. artikulua honako hau ezartzen baitu: “1. Lege honetan aurreikusitako ondorioetarako, artxibo publikoetan gordetako dokumentazio-funtsetarako sarbidea izateko eta eskatutako kopiak lortzeko eskubidea bermatzen da. 2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitakoa osorik edo partzialki funts publikoekin finantzatutako artxibo pribatuei aplikatu ahal izanen zaie, bertan jasotako baldintza berberetan.”

Eta azkenik, eta adierazgarriagoa dena, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktimak izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa, zeinak honako hau ezartzen baitu Nafarroako Memoria Historikoaren Agiritegiari buruzko 13. artikuluan: “1. Nafarroako Gobernuak, departamentu eskudunaren bitartez, Nafarroako Memoria Historikoaren Agiritegia sortuko du. 2. Agiritegi hori sortzeko, Nafarroako Gobernuak lankidetzara sustatuko du arloarekin lotura duten artxibo administratibo, erlijioso, militar edo partikularren titular diren erakunde publiko eta pribatuekin.”

Artxiboak irekitzei buruzko arau ugariak auzi honen garrantziaren adierazle dira; izan ere, datu batek, xehetasun batek edo dokumentu batek, itxuraz bigarren mailakoa izan arren, 1936an desagertutako pertsona baten egonlekuari buruzko ikerketa ebazteko balio dezake.

Adibidez, Ezkabako gotorlekuko 1938ko maiatzaren 22ko ihesaldian eraildako pertsonen egonlekuari buruzko ikerketan, elkarteak, ikertzaileak,

senitartekoak eta lekukoak bat datoz esatean garrantzitsua dela Guardia Zibilaren artxiboak kontsultatu ahal izatea; izan ere, Guardia Zibila izan zen gertakari haietan esku hartu zuen kidegoa, berak atxilotu eta, zenbait kasutan, fusilatu baitzituen ihes egin zutenetako asko.

Gertakariak behar bezala ikertzeko eta gorpuak eta datuak eskatzen ari diren familiei lagundu ahal izateko, funtsezkoa da, halaber, Falangearen eta Erreketeen balizko artxiboetarako sarbidea ere izatea (parte bat Nafarroako Artxibo Nagusian dago), horiek izan baitziren hastapeneko frankismoaren, ankerrenaren, talka-kidegoak.

Orain dela zenbait aste, artxiboen garrantziaz ohartuta, Frantziako Gobernuak erabaki zuen jendearentzat eta ikertzaileentzat irekitzea II. Mundu Gerrarekin lotutako artxibo gehienak, Frantziaren oraintsuko historiaren aldirik ilunenetako

bat gidatu zuen Pétain mariskalaren erregimen kolaborazionistarenak barne (1940-1944).

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Guardia Zibilari eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eska diezaion 1936ko uztailaren 18tik 1975eko azaroaren 20ra bitarteko aldiari buruzko artxiboetarako sarbidea ahalbidetu dezaten eta artxibo horiek ikertzaileen, senitartekoen, elkarten eta hala nahi duen ororen esku jar ditzaten, horrela betez azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoaren, 13. artikulua.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua indargabetu dezan, zeinaren bidez maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko proben ezaugarri orokorrak arautu ziren.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua indargabetu dezan, zeinaren bidez maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko proben ezaugarri orokorrak arautu ziren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua indargabetu dezan, Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko proben ezaugarri orokorrak arautu zituen.

Zioen azalpena

Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak (LOMCE), zeinak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa (LOE) aldatu baitzuen, bere 21. artikuluan ezartzen du banakako ebaluazio bat egitea Lehen Hezkuntzako seigarren maila bukatutakoan. Abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoaren azken xedapenetan bosgarrenak, berriz, banakako ebaluazioak ezartzeko egutegia ezartzen du.

Hori guztia garatze aldera, Gobernu zentralak azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua onetsi du, Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko proben ezaugarri orokorreki buruzkoa, zeina Estatuko Aldizkari Ofizialean 2015eko azaroaren 28an, larunbatez, argitaratu baita.

Errege dekretu horren indarrez, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak autonomia erkidegoei betebeharrak ezartzen die: ikasleei, familiei eta irakasleei kanpo-tentsioko osagai batzuk ekarriko dizkieten proba batzuk taxutu, aplikatu eta zuzentzea, zeinek eragin negatiboa izanzen baitute eskola-egutegiaren garapen normalean, eta, horretaz gain, gure autonomia erkidegorako zailtasun larriak ekarriko baitituzte antolamenduari, funtzionarioei nahiz ekonomiari begira.

Errege dekretu hori onetsi izanak agerian uzten du, LOMCE onetsi zenean bezala, elkarrizketarako eta akordiorako borondaterik eza, eta hezkuntza-erkidegoko eragile guztiekiko kontsentsuaren betebeharrak politikoa ere huts egitea, eta defizit demokratikoko bidegabekeria berri bat dakar, Espainiako herritar guztiei eragiten dizkien hezkuntza-gaien tratamendua dela-eta. Orobat uste dugu Gobernu zentralak destenorean inposatu duela arau hori, jarduneko gobernu izatera igaro behar zuen unean ezarri baitu.

Errege dekretu horretan desegokiro inposatzen da hezkuntza-erkidegoak Lehen Hezkuntzako etaparen amaierarako "errebalida" deitu izan duena. Azken errebalida horretan –ez baita ebaluazio bat–, ikasleek lortutako emaitzak honela adierazi beharra dago: gutxiegi, nahikoa, ongi, oso ongi eta bikain. Horrek ahalbidetuko du, Ministerioak prestatutako testuinguru-galdetegietan emandako erantzunekin batera, Espainiako ikastetxe guztien ranking edo sailkapen bat egitea.

Alegia, lehenik eta behin, LOMCEtik heldu den arau berri horrekin, Lehen Hezkuntzako ikasleek azken kalifikazio bat jasoko dute, termino oso

murriztaileetan emana eta hezkuntzaren zentzua bera nahiz hezkuntza-etapa horretan aplikatu beharreko ebaluazioaren osotasuna perbertitzen dituen.

Bigarrenik, Gobernu zentralak nahi duen ikastetxe-rankingak ezartzeak ez du hezkuntza-sistema hobetzen lagunduko; aitzitik, ikastetxeen diskriminaziorako eta prestigio-galerarako balio du, eta ikastetxeak sailkapen-sistema zinez testuingurugabetu batean kokatzeko, ez diona onik egiten hezkuntza-lanari, zeina ikastetxe bakoitzak bere testuinguruan egin behar baitu.

Hau da, errege dekretu honek, Lehen Hezkuntzako egiazko ebaluazio-printzipioekiko kontraesan eutsiezin bat ekartzeaz gain –ebaluazioak etengabea, globala, prestakuntza-emailea eta orientatzailea izan behar du–, betebeharrak zehaztugabe eta onartezinak jasotzen ditu errebalida horren aplikazioari dagokionez, zeina zeharo premiagabea, desegokia eta inposatua baita, eta hezkuntza-erkidegoak argiro arbuaiatua.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion indargabetu dezan azaroaren 20ko 1058/2015 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautu baitziren Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioko proben ezaugarri orokorrak, eta orobat premiatzen du gisa horretako jarduketa edo neurri oro geldiaraz dezan eta elkarrizketa eta kontsentsu demokratikoko egiazko prozesu bat abiaraz dezan erakunde politikoekin eta hezkuntzako eragileekin, Nafarroako Foru Komunitatean Hezkuntza egiaz hobetzera eramaten duten baldintzak berrezartzeko.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-estaldura areagotu dezan.

GEROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-estaldura areagotu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko eledun Koldo Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Estatuko araudiaren 2012ko aldaketak Osasun Sistema Nazionalaren estaldura integraletik kanpo utzi zituen egoera irregularrean dauden pertsonak, osasun-laguntza jasotzeko eskubidea laneko kotizazioei lotzean.

Nafarroan, egungo Foru Gobernuak Osasun Departamentuaren lehendabiziko neurrietako bat izan zen zirkular bat bidaltzea osasun etxe guztietara, Nafarroan bizi diren pertsona guztiek osasun laguntza doan jasotzeko eskubidea dutela aitortuz.

Horrela jakin dugu Foru Gobernuak, 2015ean, osasun laguntzarako eskubidea aitortu diela Nafarroan administrazio-egoera irregularrean dauden 1.263 pertsonari –2014an baino % 58 gehiago–.

Horregatik guztiagatik, Geroa Baik honako erabaki proposamenak aurkeztu ditu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretua indargabetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan bizi diren pertsona guztien osasun-laguntzarako eskubidea blindatzen jarrai dezan eta haien osasun-estaldura areagotu dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 15ean

Eleduna: Koldo Martínez Urionabarrenetxea.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan.

Ehunka nafar dira egunero Iruñera joan behar izaten dutenak zerbitzu jakin batzuk baliatzera, Nafarroako hiriburuan bakarrik ematen direlako zerbitzu horiek.

Hori da, hain zuzen ere, Iruñera kirurgia-operazioetarako, ospitaleratzeko nahiz tratamenduetarako joan behar dutenen kasua, zeinek, kasu askotan, laguntzaile batekin joan behar izaten baitute.

Jada aipatutako osasun-zerbitzuez gain, badira beste izapide batzuk ere –adibidez, Justiziakoak edo/eta Trafikokoak– Nafarroako hiriburuan bakarrik egin daitezkeenak eta, horrenbestez, nafar asko hara joatera behartzen dutenak.

Ez dira gutxiago, halaber, Iruñera aldi-aldi eta lan-arrazoiengatik joaten diren nafarrak, eta ez da ahantzi behar, gutxiago diren arren, Iruñeko nahiz beste herri batzuetako herritarrek sarritan joan behar izaten dutela Nafarroako beste leku batzuetara; esate baterako, Tuterara eta Erriberara.

Gaur egun, AP-15 autobidea da Iruñaren eta Nafarroako Erriberaren arteko konexio-biderik azkarrena, zeina hein batean bakarrik baitago Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta, halako moduan non bide hori baliatuta joan-etorrian ibili behar duten nafarrek –Erriberako herritarrak dira horren erabiltzaile nagusiak– 9,10 euro ordaindu behar baitute bidesaritan.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du AP-15 autobidearen erabateko doakotasuna ezar dezan, errazte aldera nafarrek bide hori erabili ahal izatea beren poltsikoetarako kostu handirik gabe.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarraibideak eman ditzan hurbiltasunekoa eta ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzuen kontratazio publikoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarraibideak eman ditzan hurbiltasunekoa eta ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzuen kontratazio publikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zalantzarik gabe, Nafarroako Foru Komunitatearen aberastasunetako bat da bere nekazaritza-eta abeltzaintza-sektorea. Sektore hori enplegua sortzeko, landa eremuko populazioaren finkatzea sustatzeko eta eremu horien despopulatzea prebenitzeko funtsezkoa den arren, krisiaren erauntsia pairatu du azken urteotan, hainbat arrazoi direla medio: salmenta-prezio txikiak, banaketaren gailuzkoak eta presioak, lehengaien prezioen igoera... Horri guztiari gehitu behar zaio landa eremuko populazio aktiboa murriztu izana, zeina gero eta zaharragoa baita.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea egonkortzen eta garatzen laguntzeko, administrazio publikoek era askotako neurriak ezar ditzakete;

horietako bat, kontratazio publikoa. Argi dago, beraz, administrazio publikoek hurbileneko toki-ekoizleen nekazaritza- nahiz abeltzaintza-elikagaiak erostea tresna egoki bat dela, enplegua sortzen laguntzen duena, tokiko merkatuak bultzatzen dituena, lurraldea dinamizatzen duena eta ingurune-jasangarritasunari mesede egiten diona.

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak irmo defendatzen ditu elikagai-subiranotasunaren printzipioak, eta, horrenbestez, uste dugu lehentasunezkoa dela Nafarroako toki-produktuen eta -zerbitzuen kontsumoa sustatzea, abantaila handiak baitakartza ekoizleentzat zein kontsumitzaileentzat. Inork ere ez du zalantzan jartzen hurbiltasuneko nekazaritza-elikagaien kontsumoa onuragarria dela osasunerako eta ingurumenerako.

Onura horien artean, honako hauek nabarmentzen ditugu: jatorri-kalitatea bermatzea, produkzio-sistema jasangarriagoak baliatzea, kostu exogenoak murriztea (garraioa), karbono-aztarna murriztea, produktuen trazabilitatea, hondakin organikoak birmoldatzeko eta energia berriztagarriak ekoizteko aukerak areagotzea, enplegua sortzeaz eta produkzio-eskualdeen garapen ekonomikoaz gain.

Kate handien aurrean hurbileneko toki-ekoizleei babesa emateko, banaketa-kanal laburren bidezko merkaturatzea erraztu beharra dago. Gainera, prozesuan sortutako plusbalioek osorik eragiten dute errentan.

Europako arau-esparruan, hala "Kontratazio publikoaren liburu berdean" nola EBko Erregioen Batzordearen "Tokiko elikagai-sistemak" Irizpenean (2011/C-104/01) hitz egiten da tokiko sistemak sendotzeaz, elikagaiak alferrik galtzea ekiditeaz, sektoreak bizi izan dugun krisia bezalakoak pairatzea ekiditeaz eta ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko harreman zuzena sustatzeaz.

Gainera, Europar Batasunak kontratazio publikoari buruzko honako zuzentarau hauek onetsi ditu Europa 2020 bere estrategiarekin:

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa.

– Europako Parlamentuaren 2014/25/EB Zuzentaraua, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten diren entitateek eginiko kontratazioari buruzkoa.

– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB Zuzentaraua, emakida kontratuen esleipenari buruzkoa.

Kontratazioaren arloko Europako zuzentarau hauek “erosketa publiko arduratsua” delakoaren aldekoak dira; izan ere, administrazio kontratugileek gizarte- eta ingurumen-alderdiak lehenets ditzakete beren lizitazio-orrietan, preziorik lehiakorrenei soilik erreparatu beharrik gabe. Halatan, jada badira adibideak beste herrialde batzuetan –Frantzia edo Italia, kasu–, non tokiko elikagai ekologikoak eta tradizionalak sartzearen aldeko apustua egiten baita eskoletako eta ospitaleetako jantoki-zerbitzuetan.

Gure ustez, irizpide sozialetan oinarritutako kontratazio-eredu berri horrek gizarte bidezkoago bat, orekatua, egituratua eta jasangarria ekarriko luke. Konbentziturata gaude, halaber, administrazio publikoek, legegintza-ekintzaren bidez gizartean eragiteko ahalmena izateaz gain, kontratazio publikoan tresna boteretsu bat daukatela, kontratatzeke orduan jarrera arduratsuak eta eredu garriak izateari begira. Administrazio Publikoak enpresa pribatuarentzako eredu izan behar du, eta aitzindari izan behar du enpresen erantzukizun sozialari dagokionez, interes orokorraren mesedetan eta merkatu jasangarriagoak eta gizarte inklusiboagoak eratzen lagunduz.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du jarraibideak eman ditzan, hurbiltasuneko eta, ahal den neurrian, ekologikoa izan dadin ikastetxe publikoetara, ospitaleetara, zahar-etxeetara eta gainerako zentro publikoetara bideratutako elikadura-produktu eta -zerbitzu guztien kontratazio publikoa, kasuko sektoreekin lankidetzan (sindikatuak, ekoizle-kooperatibak, kontsumitzaile-kooperatibak, eta abar) eta legedi indardunarekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lizitazio-prozeduretan agertuko diren gizarte- eta ingurumen-klausulak zehatz ditzan, produktu horiek erostean edo zerbitzu horiek kontratatzean ez dakion prezioari soilik errepara esleipena egiteko irizpide gisa, eta eskaintzen gizarte- eta ingurumen-alderdiak ere har daitezela aintzat. Irizpide horien artean, honako hauek sartu beharko lirateke:

2.1. Laneko segurtasun eta osasun arloko araudia betetzeari buruzko klausulak.

2.2. Berdintasunari buruzko klausulak: enpresan emakume langileek egiten duten ehunekoa, norberaren bizitza eta lana bateragarri egiteko neurriak, eta sexu-jazarpeneko edo sexua dela-eta sorturiko jazarpen-jarrerak prebenitzeko neurriak.

2.3. Tokiko enplegua sustatzeari buruzko klausulak: lurraldeko enplegu-zentroen bidez kontratatzea langileen ehuneko zehatz bat, enplegu bulegoetan izena emandako pertsonak kontratatzea, kontratazio mugagabeko portzentaje handiak, eta prestakuntza-ekintzak sustatzea esleitutako zerbitzuari atxikitako langileen artean.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz taxutu dezan Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Plana.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziaz taxutu dezan Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Plana.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko I. Plana 2005eko udazkenean onetsi zen, eta 2007ra arteko indarraldia zuen. Plan horretan honako hauek jasotzen ziren: eskaintza komertziala kontsumitzaileari eta eskari-tipologia ezberdinei egokitzeko hautatutako formulak; merkataritzaren lurralde-oreka bultzatzea; hiri-bilbeko

merkataritza udalen ardatz gisa taxutzea; merkataritza-formatuen arteko oreka; merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea, prestakuntza egoki batetik eta teknologia berrietatik abiatuta; eta txikizkako merkataritza sustatzea, Nafarroako bertako produktuaren banatzaile gisa.

Lehendabiziko planaren ondotik, logikoa den bezala, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko II. Plana heldu zen, 2008tik 2011ra bitarteko indarraldiarekin. Helburu bertsuak zituen, baina nabarmen handitu zen esleitutako diru-kopurua; izan ere, 16 milioi euro zeuzkan, eta aurrekoak, aldiz, 6,6 milioi euro. Halaber, bigarren plana iraungitakoan, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko III. Plana onetsi zen, zeina iazko urrira arte egon baitzen indarrean.

Plan garrantzitsu horrek ez du jarraipenik izan hirugarrenaz gero; halatan, 25.000 nafar baino gehiagori enplegua ematen dien sektore bat estrategiarik gabe gelditu da, nahiz eta txikizkako merkataritzak BPGaren ehuneko handi bat egiten duen.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz taxutu dezan Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Plana, eta 2005etik aitzina beharrezkoak izaten ari diren giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta teknikoak jar diezazkion.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten baitizkie TRW Automotive España, S.L. lantegiko langileei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasuna adierazten dizkie Landabengo TRW Automotive España, S.L. lantegiko langileei, 250 kaleratze ekar ditzakeen enplegu-erregulazioko espediente baten jomuga baitira.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Enpresa Batzordeak egin nahi dituen mobilizazioekin.

3. Nafarroako Parlamentuak orobat helarazi nahi die babes eta elkartasun adierazpen hau enplegu-erregulazioko espedienteen jomuga izan

diren beste enpresa batzuetako langileei –esate baterako, Buñuelgo General Electric enpresakoei– eta lan-arazoak dituztenei –Doneztebeko Aparan enpresakoei, adibidez–.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskueran dituen tresna guztiekin lagun dezan, ordezkaritza sindikalarekin koordinaturik, TRWko enplegu-erregulazioko espedientea modu onuragarrian ebatz dadin, lanpostu guztiak mantentzen direla eta enpresa-jarduerak jarraitzen duela bermatzea helburu”

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie Olga Comes presoaren hurreko pertsoneri.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Olga Comes nafar presoaren hurreko pertsoneri –bereziki, atzo trafiko istripu bat izan zuenari–, bai eta sakabanaketaren eta urruntzearen biktima diren pertsona guztiei ere.

2. Nafarroako Parlamentuak bipil arbuiatzen ditu salbuespenezko espetxe-politikak, presoan

sakabanaketa eta urruntzea barne, eta Espainiako Gobernuari exijitzen dio politika horiek indargabertu ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak bidezko diren zuzemenak egin ditzan, Nafarroan errotuta dauden presoak Iruñeko espetxera ekarri ahal izan daitezen”

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroa-Akitania-Euskadi Lurralde-lankidetzako Europako Taldeari buruzkoa.***IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa-Akitania-Euskadi Lurralde-lankidetzako Europako Taldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Galdera, zeinaren bidez jakin nahi baita zer nolako eragina izanen duen Frantziako Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeen bat-egiteak Nafarroa-Akitania-Euskadi Lurralde-lankidetzako Europako Taldean.

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengo-etan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Eskualde-zedarritzeari eta eskualde- nahiz departamentu-hauteskunderi buruzko 2015eko urtarrilaren 16ko Legearekin bat, Frantziako Errepublikako eskualde-kopurua 22koa izatetik 13koa izatera igaro da aurtengo urtarrilaren 1etik aitzina. Halatan, batu egin dira Akitania, Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak.

Nafarroako Gobernuaren ustez, aldaketa horrek zer-nolako eragina izan dezake Nafarroa-Akitania-Euskadi Lurralde-lankidetzako Europako Taldean?

Jadanik egin al zaie horri buruzko kontsultarik Euskal Autonomia Erkidegoko eta Akitaniako agintariei?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, Nafarroako Elkarrenganako Bermedun Sozietateak Elizondon eginen duen utzarazpenari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Elkarrenganako Bermedun Sozietateak Elizondon eginen duen utzarazpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du Osoko Bilkurarako.

Nafarroako Gobernua SONAGAR SGR-Nafarroako Elkarrenganako Bermedun Sozietatearen bazkide babeslea da, NEKP-Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren bitartez. Sozietate horrek Elizondon berehala eginen duenez utzarazpen bat, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Gobernua egoera horren jakinaren gainean al dago? Gobernuak ekintzarik eginen al du ez dadin egin ez utzarazpen hori, ez egiteke leudekeen beste batzuk ere?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Alergologia-arloko itxarote-zerrenda luzatzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Alergologia-arloko itxarote-zerrenda luzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik luzatu da itxarote-zerrenda azken sei hilabeteotan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Alergologia-arloan?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Servicios Sociosanitarios Generales enpresak emandako anbulantzia-zerbitzu publikoari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Servicios Sociosanitarios Generales enpresak emandako anbulantzia-zerbitzu publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Servicios Sociosanitarios Generales (SSG) enpresa zerbitzua ematen hasi zenetik lau hilabe-

te iragan direlarik, eta enpresa horrek otsailaren 7ko 8/2011 Foru Dekretuko zenbait artikuluko ustez urratu dituela jakin dugunez –izan ere, SSG enpresa kontratatzearen klausulen orrian, 2.6 puntuan, zeina aplikatu beharreko araudiari buruzkoa baita, otsailaren 7ko 8/2011 Foru Dekretua aipatzen da kontratuan bete beharreko arau gisa–.

Nafarroako Gobernua SSG enpresaren urraketan horien jakinaren gainean al dago? Baiezkoan, zer ari da egiten horri dagokionez?

Osasun Departamentuak SSG enpresari egindako kontrolei buruzko daturik ba al dago? Zer kontrol-mota egiten dira? Nola eta nork egiten ditu? Bermatzen al da klausula-orrietan ezarritakoa betetzen dela, batez ere Gobernuak enpresei garraio urgentearen eta ez urgentearen zerbitzurako laguntza-kontratua arautzeko ezartzen dizkien baldintza teknikoei dagokienez?

Nola kontrolatzen eta bermatzen da “kalitateko enplegua”, programa-akordioko zenbait punturen arabera, SSG enpresari anbulantzia-zerbitzu publikorako eginiko esleipen berrian?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, itxarote-zerrendak murrizte aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan planari eta irizpideei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, itxarote-zerrendak murrizte aldera Nafarroako Gobernuak darabiltzan planari eta irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Prentsan agertutako azken datuen arabera, abenduan 55.208 gaixo zeuden lehen kontsultaren zain (2014an baino 1.357 gutxiago).

Gauzak horrela, zer plan eta zer jarduketa-irizpide darabiltza Nafarroako Gobernuak 2016ko ekainera bitarte?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, preskribatutako zor fiskalari buruzkoa.*MARÍA FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, preskribatutako zor fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

tuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Gure alderdia kezkatuta dago, eta hala jaso da programa-akordioan ere, proposatu ditugun neurri guztiak bete ahal izateko diru-sarrera publikoak areagotu behar direlako. Hartara, kezkatuta gaude berrikitan gertatu ahal izan diren zor-preskripzioak direla-eta, bai gardentasun informatiboari begira, bai etorkizunean praktika horiek ahal bezainbeste murrizteko neurriak abian jartzeari begira ere. Hori guztia helburu, Kontuen Ganberari eskatu diogu horri buruzko txosten bat egin dezan. Txostena jaso baino lehen, ordea, honako hau jakin nahi genuke:

Zeintzuk dira azken lau urteotan preskribatutako zor fiskalaren datuak? Zeintzuk dira funtsezko baliabide batzuk eskuratu ezinik uzten gaituzten preskripzioen arrazoiak?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

Galdera, lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak Buñuelgo Alstom enpresako arduradunekin izandako bilerari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak Buñuelgo Alstom enpresako arduradunekin izandako bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Ayerdi kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuako lehendakariorde eta Garapen Ekonomikorako kontseilariak gaurko Osoko Bilkuran adierazi du bilera bat izan duela Alstom enpresaren Buñuelgo lantegiko arduradunekin.

Hori dela-eta, honakoa galdetzen dugu:

– Ayerdi jaunak zer ondorio atera du bilera horretatik? Nola ikusten du Buñuelgo lantegiaren etorkizuna?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Hezkuntzako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun ditzan:

– Nafarroako Gobernuak noiz egingen du Hezkuntzako lan-eskaintza publikoaren deialdia?

– Noiz egingen dira probak?

Corellan, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Planari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko I. Plana 2005eko udazkenean onetsi zen, eta 2007ra arteko indarraldia zuen. Plan horretan honako hauek jasotzen ziren: eskaintza komertziala kontsumitzaileari eta eskari-tipologia ezberdinei egokitzeko hautatutako formulak; merkataritzaren lurralde-oreka bultzatzea; udalen ardatz gisa taxutzea hiri-bilbeko merkataritza; merkatori-

tza-formatuen arteko oreka; merkataritzaren lehiakortasuna hobetzea, prestakuntza egoki batetik eta teknologia berrietatik abiatuta; eta txikizkako merkataritza sustatzea Nafarroako bertako produktuaren banatzaile gisa.

Lehendabiziko planaren ondotik, logikoa den bezala, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko II. Plana heldu zen, 2008tik 2011ra bitarteko indarraldiarekin. Helburu bertsuak zituen, baina nabarmen handitu zen esleitutako diru-kopurua; izan ere, 16 milioi euro zeuzkan, eta aurrekoak, aldiz, 6,6 milioi euro. Halaber, bigarren plana iraungita-koan, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko III. Plana onetsi zen, zeina iazko urrira arte egon baitzen indarrean.

Plan garrantzitsu honek ez du jarraipenik izan hirugarrenaz geroztik; halatan, 25.000 nafar baino gehiagori enplegua ematen dien sektore bat estrategiarik gabe gelditu da, nahiz eta txikizkako merkataritza BPGaren ehuneko handi bat egiten duen sektore bat den.

Galderaren testua

Aurreikusita al dago Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Plana taxutzea eta betetzea? Baiezkoan, zer epe eta zer zuzkidura ekonomiko aurreikusten dira?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, heldu den ikasturtean D eredia eskatzen duten herritarren beharrianak asetze aldera Hezkuntza Departamentuak aplikatuko dituen irizpideei eta neurriei buruzkoa.

MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, heldu den ikasturtean D eredia eskatzen duten herritarren beharrianak asetze aldera Hezkuntza Departamentuak aplikatuko dituen irizpideei eta neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Esther Korres Bengoetxeak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentaria denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du kontseilari Mendoz jauna Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Akordio parlamentarioari jarraikiz, heldu den ikasturtean D eredia Nafarroa osoan zabalduko da, eremu misto eta ez-euskaldunetan barne. Hori dela eta, foru parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zer-nolako irizpide eta neurriak aplikatu ditu Hezkuntza Departamentuak D eredia eskatzen duten hiritar guztien beharrik asetzeko, gutxieneko ratio, baliabide material eta giza baliabideei dagokienez?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

Galdera, “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeko aurreproiektua edo proiektua egiteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeko aurreproiektua edo proiektua egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeko aurreproiektua edo proiektua egiteko?

Corellan, 2016ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera hezkuntza-eragileekin Gobernuak izandako bilerei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera hezkuntza-eragileekin Gobernuak izandako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Galdera, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera hezkuntza-eragileekin Gobernuak izandako bilerei buruzkoa.

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Gobernuak bilerarik egin al du hezkuntzarloko kasuko eragileekin, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera, Gobernuaren programa-akordioan jasotzen den moduan?

– Akordio hori betetzeko aurreikusitako egutegia.

Corellan, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, “itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako azpiegituren kostuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako azpiegituren kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

“Itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako azpiegituren kostuari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

• Nafarroako Gobernuak “itzaleko bidesaria” dela-eta egindako ordainketen zerrenda bat, urtez urte antolatua (erabiltzaile-kopurua adierazita), azpiegitura bakoitzeko.

• Enpresa esleipen-hartzaileek azpiegitura bakoitzean egindako inbertsio osoaren xehakapena.

- Urteko ordainketa- eta amortizazio-egoeraren proiektio bat, kontuan hartuta interes-tasen bilakaera, zeinean gaur egun egonen baitziren aipatu azpiegiturak baldin eta haiek zuzeneko inbertsio publikoaren formula baliatuta eraikitzea erabaki izan balitz.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak bere sinatzetik sortu dituen lanpostuei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak bere sinatzetik sortu dituen lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Zenbat lanpostu sortu zituen Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak, izenpetu zenetik?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao

Galdera, Nafarroako familien fiskalitateari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mónica Doménech Linde andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako familien fiskalitateari buruzkoa zen, eta 2015eko

azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Osasun-sisteman itxarote-zerrenda itxiren bat egoteari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Osasun-sisteman itxarote-zerrenda itxiren bat egoteari buruz-

koa zen, eta 2016ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzea.

HAUTAGAIK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluko kide bat hautatzeko epea 2016ko otsailaren 5eko 12:00ak arte luzatzea.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
